

# Aretxagazeta



**ESKIATZERA!**  
ASTEBUKAERAKO IRTEERA  
MURRUKIXOK ANTOLATUTA

**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA

**Tokiko Agenda 21 aurrera  
eramango dute /08**

KOMUNIKABIDEAK

**Euskaltelen bitartez  
ikusiko da Telesko /09**

LEINTZ GATZAGA

**Urteroko bazkaria egingo  
du Sorginakek /10**

**SANEAMENDU LANAK: ZARAIA ETA ARALAR KALEETAN/5 • KIROLAK: XAKE DENBORALDIA BUKATZEAR/6**



**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 6**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 7**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basobko ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Instituta ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
KZGunea ..... 943 79 94 44  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxiko ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 79 74 58  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Taxi geltokia ..... 943 77 12 64  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 53 47 20  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdiak ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domekan 11:30ean.

**ARKARAZO**  
Domekan 12:30ean.

**GALARTZA/IZURIETA/GELLAO**  
Ez dute mezarik esango.

**OHARRAK**

**ELKARRIREN SINADURA BATZEA**  
Elurraren erruz atzeratu egin zuen Elkarririk sinadura batzea. Bihar, zapatua, egingo dute, Durana kalean.

**ARALAR-ZUTIK-EN HITZALDIA**  
Hitzaldia egingo du Aralar-Zutik-ek martxoaren 10ean, eguaztena, 19:00etan, udaletxeko ganbaran. Ritxar Irazusta ABko kidea, Pilar Etxaniz eta Xabier Sarasua izango dira.

**ESKI IRTEERA LUZ ARDIDENERA**  
Murruxiko MEK eski irteera antolatu du Luz Ardidenera aste bukaera honetarako. Zapatuan goizean goiz aterako dira, eta domekan itzuli.

**GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETAKO FINALA**  
Gipuzkoako Trialsin Txapelketako finala egingo dute kanposantu inguruan, 10:30ean hasita. Gazteteren batek parte hartu gura badu, proba hasi aurretik eman behar du izena, eta bizikleta utziko diote.

**ESKOLA ARTEKO MENDI-IBILALDI NEURTUA**  
XVII. eskola arteko mendi lehiaketa egingo dute Aretxabaleta inguruan. Gipuzkoako eskoletako gazteteroek hartuko dute parte, eta ibilaldi neurtua izango da.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**SORGINEN GAINENKO HITZALDIA**  
Euskal Herriko historian emakumeek eta sorginek izan duten garrantziak egingo du berba Alizia Sturtzek martxoaren 11n, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

**AMARAUN TALDEA**  
Kontzertua emango du Amaraun taldeak martxoaren 26an, egubakoitza, 22:30ean Orly tabernan. Euskal jazz egiten du.

**ORAINDELA 9URTE ARETXABALETAN**

**Futbol zelaia inauguratu zuten, berrituta**

Martxoaren 5ean inauguratu zuten Ibarra futbol zelaia, berritu ostean. Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletako arduradunak izan ziren ekitaldian, eta Anton Martinez de Agirrek moztu zuen zinta. UDAK eta Eskoriatzak futbol partidua jokatu zuten, eta eskoriatzarrek irabazi zuten.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**MARINA**  
Mariasun Landa  
Berria, 2003  
36 orrialde

Mariasun Landaren beste liburu batzuetan agertzen den neskatila da Iholdi. Anaia txiki bat dauka, eta gurasoek neska bat hartuko dute anaia eta bera zaintzeko. Hasiera batean Iholdik ez du gustuko izango zaintzailea izatea, baina gero, Marinaren laguna egingo da, ez duelako umea bezala tratatzen. Parkean daudela pertsonaia misteriotsu bat agertuko da eta gauza arraroak gertatuko dira, Iholdik ongi ulertuko ez dituenak. Marinak sekretua gordetzeko eskatuko dio.

Istorio polita duzue, 8 urtetik aurrera irakurtzeko modukoa.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Gonaiza"*



Guraizak, artaziak.

**ZORIONAGURRAK**




ARETXABAETA  
**Saioa Berasaluze**  
1ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Angel Torres**  
1ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Alba Mazparrote**  
5ean, 2 urte. Zorionak, osaba-izeben eta aitona-amonen partetik.



ARETXABAETA  
**Eneko L. de Armentia**  
5ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Pili Lezeta**  
7an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARETXAGAZETAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA

**PHOTOSYNTHESIS**

argazkilaritza


**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABAETA 943 79 79 67

**MIRVAT**

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru Guarda pasealekua 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxe: 943 71 50 05  
www.mirvat.com





## ATREBENTZIAEZPADA/ Futbol jokalaririk batzuk billuztu egin die ez dauela kobretan esateko. Ze uste dozu?



**JOKIN IDIGORAS**  
Langillie



**MONIKA PEREZ**  
Langillie




**AITOR IRURE**  
Langillie



**AMAIA LETURIAGA**  
Langillie



**AITOR AGIRIANO**  
Langillie



**IDOIA ETXEBARRIETA**  
Langillie

Ondo, espero dot zeozer lortuko dauela. Gaur egun futbol jokalaririk kobretan daue emuten dutziena, eta hor pagetan dauenak dauko zeresana, berak jarten dau-eta mugie.

Ondo pentsetan jat, eta hola euren soldatie jasotie lortzen badaue edarto, bestela gaixuek... Dana dala, futbol partidu bat jokaketiagatik danek be larrei kobretan dauela pentsetan jat.

Ondo, baiñe ez dot uste ezer lortuko dauenik. Oriñaltasune galdute dau, eta aspaldixen idea askok kopi-xau dau. Futbola montaute dauen sistemien ondori-xue da euren egoerie.

Ondo, *Interviú* saltzen bada lortuko daue zeozer. Hala eta be, futbol jokalarixei, lelengo maillakue batez be, larrei pagetan jakuela uste dot. Futbolaz gain beste kirol batzuk be badaz...

Ondo, protesta egitteko modu bat da, eta zeozer lortuko dauelakuen nau. *Interviú* aldizkarixe jente askok irakurten dau, eta hola euren egoerien barrixe jente askongana aillegauko da.

Ondo, jentiek ikusi behintzet egingo dittu, eta atentziñue emutie lortuko daue. Lelengo maillako jokalaririk larrei kobretan daue, eta mailla bajuetan dauzenak gutxi, gehixau merezi arren.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK AUZOETAKO ERREPIDEAK ELURTUTA** Haserre ibili ziren aste bukaeran auzoetako bizilagunak; izan ere, Udaleko langileei kostatu egin zitzaizen auzoetako errepideetako elurra kentzea. Zapatu arratsaldean elurra kentzeko makina apurtu egin zitzaizen, eta astelehen goiza arte ezin izan zuten ezer egin. Hori horrela, automobilean jaisteko oso gaizki ibili ziren auzotarrak. /M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Parrokiako batzarra

Ezkontza sakramentua hartzen dutenei jarraipena egitea erabaki zuten parrokiako kideek.

ASTEAN BEHIN /05

#### Saneamendu lanak

Zaraia eta Aralar kaleetan saneamendu lanak egiten hasiko dira. Zazpi hila-bete iraungo dute.

KIROLAK /06

#### Xake denboraldia

Partida bi bakarrik falta zaio Arlutz Xake Taldeari aurtengo denboraldia bukatzeko.

### ASTEKODATUA

# 7

#### HILABETE SANEAMENDU LANAK EGITEKO

Zaraia eta Aralar kaleetako saneamendu lanak egiten hasiko dira laster. Amenabar enpresak egingo ditu lanak, eta zazpi hilabete eta erdi inguru iraungo dute. Ia 800 mila euroko aurrekontua dute.

### BESTEKEESANA

**Bitan sartu naiz Aretxabaletako batzokian: udal hauteskundeen bihamunean boto gehien atera**


**zituztelako zorionak ematera Joan ginen, eta bigarreanean, udal gobernuan sartzeko proposamena egin zigutenean bilera egitera.**

**Herriko tabernan orain dela bi asteburu sartu nintzen. Hiruzpalau tabernatan ibili izan gara beti, bat Urbaltz, eta jarraitzen dugu joaten.**

**Jendeak uste baino askoz ere boto gehiago espero ditugu Euskal Preso Politikoen Kolektibotik. Presoen zati handi batek badaki -eta horrela jakinarazi digu gurekin izandako harremanetan, harremanak baditugulako preso asko eta askorekin-, bide zibil hutsak erabiltzen hasten garenean errazagoa izango dutela haiek ere irtenbidea.**

**XABIER SARASUA**  
'Berria'/04-03-02

### HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



*Giza eskubide guztiak guztiontzat?*

**B**atasunarekin hitz egiterik ez dago, giza eskubideen aldeko konpromiso garbia hartzen ez duen artean". Antzeko esaldiak, alderdi gehien ahoan entzuten ari gara, eta bi mezu gordetzen dituzte. Batetik Batasunak ez duela giza eskubideak errespetatzen, eta bestetik, hori esaten duena, eskubide horien defentsan txapeldun dela. Horrela ote da?

Hau aztertzeke, inguruak eskaintzen dizkigun giza eskubide urraketatik bat hartuko dugu, tortura hain zuzen. Eta alderdiek honen

aurrean duten jarrera ikustera-ko orduan, PP eta PSOE alde batera utziko ditugu, hauen ikuspuntuak nahikoa garbia delako, eta Gasteizen agintea duen hirukotean zentratuko gara.

Hiru alderdi hauek torturaren aurkako adierazpenak egin izan dituzte (ez sarritan egia esan). Horraino euren hitzak. Eta ekintzak? Askotan ikusi ahal izan dugunez, ertzaintzaren aurkako salaketan aurrean Madrilekoak bezala jokatzeko dute: sala-

ketak zuzenean faltsutzat jo, eta inolako ikerketarik burutu ez.

Bestalde, lege antiterrorista deritzona dugu. AI bezalako erakundeek, lege honek indefentsioa eta inpunitate guneak sortzen dituela, eta ondorioz torturaren praktika errazten duela salatu dute. Hiru alderdiok ere

lege honen aurka mintzatu ohi dira (gutzitan kasu honetan be). Baina euren aginduetara dagoen ertzaintzak, sistematikoki erabiltzen du lege hau. Zinismoaren topea EAK jo du, Madrileko parlamentuan lege honen aurkako ekime-

na aurkeztuz. Ekintza hau antzu bezain txalogarria izan zitekeen, benetan eraginkorra izan daitekeen tokian ezer ez egiteak sinesgarritasuna kenduko ez balio.

Ikusten dugunez, beraz, torturarekin amaitzeko asmo eska-erakusten dute PNV-EA-IUK. Egia da honekin erabat bukatzea ez dagoela euren esku, baina ertzaintzak atxilotzen dituen pertsonen segurtasuna eta eskubideak bermatzea euren erantzukizuna da.

**"Hiru alderdi hauek torturaren aurkako adierazpenak egin izan dituzte. Horraino euren hitzak. Eta ekintzak?"**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Futbol kontuek

Zenbat burukomin edurre dala eta ez dala. Auzuetako bizilagunek hasarre antzien ibilli die euren bidietatik ez dutzielako edurrik kendu. Izen be, edurre etorrenerako gertu ginguzelakuen eta bigarren egunien edurre kentzeko makiñie apurtu. Hori da hori. Baiñe gurien bakarrik ez da izen Eskoriatzan eta Mondraguen be antzera ibilli diela entzun dot.

Futbol partidurik be ez zan egon aste bukaeran. Beste batzuk, oster, partiduek jokatu bai, baiñe kobrau ez. Horixe pasetan jakue Xerez CD taldekuei, tartien Mikel Etxabe aretxabaletarra. Zeozer egin biher hori salaketako, eta biluztu egin die *Interviú* errebitsan. Barregarrixen izen biherko litzakien kontue nehikue tristie da. Lana egin eta kobrau ez, ez da gero bidezkie.

**PARROKIA/** Batzarra egin zuten joan zen astean, eta hainbat gai erabaki zituzten

# Ezkontza sakramentua hartzeko betebeharrak batzuk eskatuko dituzte

MIRARI ALTUBE


Batzarra egin zuten parrokiako kideek orain aste bi, eta 35 lagun batu ziren. Sakramentuen gainean eztabaidatu zuten; hain zuzen ere, bataio, jaunartze eta ezkontza sakramentuak hartzeko gutxienerako batzuk betetzea beharrezkoa den edo ez.

Sakramentuak nori eman aztertu zuten parrokiako kideek urteko lehenengo batzarrean; eta hainbat erabaki hartu zituzten.

### EZKONDUTAKOEI JARRAIPENA

Batzarrerako deialdia 350 laguni egin zieten Andre Mariaren Zeruratze parrokiako arduradunek; bataiatutako eta katekesian dabilzan umeen gurasoei eta azken bi urteotan ezkontza sakramentua hartu duten bikoteei, hain zuzen. Horietatik, 35 lagun baino ez ziren agertu. Hala ere, parrokiako arduradunak pozik zeuden 35 lagunetatik zortzi katekesian dabilzan umeen gurasoak izan zirelako, hau da, guraso gazteak.

Gai bakarra izan zuten eztabaidagai batzarrean agertutakoak: bataio, lehenengo jaunartze eta ezkontza sakramentuak hartu behar dituztenei betebeharrak jarri edo ez. Era guztiatiko iritziak azaldu ziren. "Hala ere, ezkontza sakramentua hartzen dutenekin lan egitea beharrezkoa dela ikusi genuen. Izan ere, hartzen duten fede konpromiso horri jarraipena eman behar lioketela uste dugu", dio Antziñe Mendia



35 lagun elkartu ziren parrokiako kideek egin zuten urteko lehenengo batzarrean.

parrokiako kideak. Horren hari- ra, jarraipen hori ezkontutako bikoteekin zelan egin edo zelan bideratu Pastoral batzordean landu beharko dute orain.

### HURRENGOA MAIATZ INGURUAN

Hurrengo batzarretan zein gai landu erabaki zuten, bukatzeko. Hainbat gai aipatu zituzten: liturgia ospakizunak zelan egin, bakea

lortzeko bideak zelan landu, adiskidetze prozesua bultzatu, etxebizitzaren egoera eta inmigranteen egoera, besteak beste. Eskaera horiek guztiak Pastoral Kontseiluan edo helduen taldeetan aztertuko dituzte, eta zelan landu eta aurrera zelan eroan erabakiko dute. Hurrengo batzarra, aurtengo bigarrena, maiatz inguruan egitekotan geratu ziren.

## LABUR

### Ohiko osoko bilkura egingo dute astelehenean

Aretxabaleako udalbatzak ohiko osoko bilkura egingo du datorren astelehenean, martxoaren 8an, 18:30ean. Hainbat gai aztertuko dituzte. Tartean, Manu Azkarate presoaren aldeko mozioa.

### Kultura ekitaldiak antolatuko dituzte batzarra egingo dute

Batzarra egiteko deialdia egin diete herriko gazteei, hormetan jarritako kartel bidez. Batzarra gaur, egubakoitza, egingo dute kultura etxean, 19:00etan, eta kultura ekitaldiak antolatuko dela diote. Antza denez, herrian gauza handirik ez dela antolatzen-eta egin dute deialdia. Ikusi egin behar zer ateratzen den.

### Hitzaldia egingo du eguaztenean Aralar-Zutik taldeak

Martxoaren 14ko hauteskundeak gertu ditugu, eta Aralar-Zutik taldeak hitzaldia egingo du martxoaren 10ean, eguaztana, 19:00etan, udaletxearen ganbaran. Ritxar Irazusta Abergazaleen Batasuneko kideak, Pilar Etxanizek eta Xabier Sarasua Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburuak egingo dute berba eguaztenean.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**LEIBAR**  
arrandegia

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 18 33  
Mitarte kalea 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta




**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**Jauregi**  
**Okindegia**

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABAleta



**EGUZKIGRAF**

inprimategia

**25.**  
urteurrena

1979-2004



HITZALDIA/ Muru-Alde elkartean batutakoek galdera asko egin zizkieten pilotariei

# Giro bikaina sortu zuten Olaizola II.ak eta Retegik

M.A.

Martitzenean etorri ziren Aimar Olaizola, Julian Retegi eta Iñigo Simon Asegarce enpresako medikua Muru-Alde elkartera. Gazte zein nagusi, 50 lagun inguru batu ziren elkartean; tartean, Olaizola II.ari autografo eske joandako hainbat jarraitzaile.

Giro bikaina sortu zuten Asegarce enpresako pilotari, arduradun eta medikuak Muru-Alde elkartean. Manolo Zubillagak egin zituen aurkezpen lanak, eta galdera ugari egin zizkieten batutakoek; jarraitzaileen iritziak ere entzun zituzten.

## ESKUKO GAITZAK

Iñigo Simon medikuak egin zuen berba lehenengo. Pilotariek izaten dituzten eskuko gaitzak izan zuen hizpide, eta adierazi zuen sarritan oso zailak direla antzematen eta osatzen. Adi-adi entzun zioten guztiek.

Medikuaren berbaldia bukatutakoan heldu zen elkartera Julian Retegi, eta orduan, galdera-erantzunen tartea hasi zuten. Aurreko zapátuko partidua zer-



Jarraitzaileen iritziak ere entzun zituzten Asegarceko hiru kideek.

gatik utzi zuten bertan behera, *tongorik* egiten duten partiduetan, materialen artean alde handia egoten den eta beste hamai-ka galdera egin zizkieten. Bai

Julianek, bai Aimarrek pazientzia handiarekin erantzun zituzten guztiak. Umorea eta lasaitasuna izan ziren nagusi, eta giro bikaina sortu zuten.

# Zaraia eta Aralar kaleetako saneamendu lanak hastear daude

M.A.

Zaraia eta Aralar kaleetako saneamendu lanak hasiko dituzte datozen egunetan. Zazpi hilabete inguru iraungo dute lanok, eta Amenabar enpresak egingo ditu. Hankaz gora egongo dira kaleok hurrengo hilabeteotan; hortaz, pazientzia beharko dute bizilagunek.

Urtero gordetzen du Udalak dirua aurrekontuan saneamendu eta hornikuntza plan bereziko lanak egiteko. Poliki-poliki

herriko ur hodi guztiak berritu gura ditu, eta Solohandi kalekoak bukatu eta gero, Zaraia eta Aralar kaleetakoak hasiko dituzte egunotan.

## ZAZPI HILABETEKO LANAK

Bost eraikuntza enpresak aurkeztu zituzten proiektuak Zaraia eta Aralar kaleetako saneamendu lanak egiteko. Lanak egiteko plangintza, aurrekontua, lanak egiteko epea, lantaldea eta beste hainbat baldintza izan zituen Udalak kontuan, eta Amenabar eraikuntza enpresari agindu ziz-

kion lanok, baldintza egokienak eskaini zizkiolako. Zazpi hilabete inguru iraungo dute, hain zuzen, eta ia 800 mila euroko aurrekontua daukate. Hilabete horietan hankaz gora egongo dira aipatutako kale biak; hortaz, pazientzia izan beharko dute bizilagunek.

Saneamendu eta hornikuntza plan bereziari garrantzi handia eman dio beti Udalak, eta herriko kale guztietako ur hodiak aldatzen dabil; bai ur zikinak daramatzaten hodiak, bai edateko ura dakartzatenak.

## LABUR

### Xerez CD taldeko jokalaria, tartean Mikel Etxabe, biluzik agertu dira 'Interviú' aldizkarian

Xerez CD futbol taldeko jokalaria, tartean Mikel Etxabe aretxabaletarra, biluzik agertu dira aste honetako *Interviú* aldizkarian. Horrela atenzioa emanaz euren egoeraren berri jakinarazi gura dute. Izan ere, dagoeneko lau hilabete daramatzate dirurik jaso barik; batzuei azken bi urteetako fitxa ere zor diete. Eta Jose Maria Gil Silgado presidenteari ordain diezaiela eskatzen diote. *Silgado, paga!* dioen kartel baten ostean daude jokalaria aldizkarian kale-ratu duten argazkian.

### Emakumearen eguna gogoratzeko Alizia Sturtze idazlea etorriko da hitzaldia egitera egunean

Astelehenean, martxoak 8, emakume langilearen eguna da. Hori horrela, Loramendi Euskara Elkartean dagoen Tril emakume taldeak emakumeen gaineko hitzaldia antolatu du egunerako, martxoak 11. Alizia Sturtze idazle donostiarra etorriko da, eta Euskal Herriko historian emakumeek eta sorginek izan duten garrantziaz egingo du berba. Aliziak hitzaldia bukatutakoan luntxa eman-goto dute Loramendi Eeko kideek. Udaletxe zaharrean izango da ekitaldia, 19:00etan.

Alizia Sturtze Ingeles Ikasketetan eta Espainiako eta Ameriketako Historian lizentziaduna da. Batez ere Euskal Herriko historian da aditua, eta hainbat liburu argitaratu ditu, tartean *Sorgiñak eta errepresioa Euskal Herrian*. Gara egunkarian iritzi artikulua egiten ditu hamabostean behin.



### Bapo ospatu zuten Aingeru Guarda eguna

Domekan eta astelehenean egindako ekitaldiekin ospatu zuten Basotxo elkarteko erretiratuek zaindariaren eguna, hau da, Aingeru Guarda eguna. Mezaren ostean, 80 bat lagun elkartu ziren Taberna Berri jatetxean astelehenean, eta bapo bazkaldu zuten guztiek. Bazkalostean musika izan zuten, eta batzuk nekatu ere ez ziren egin dantzan egiten.



943 771255

  
**MARIA JESUS**  
**ARGAZKILARIA**  
 JAUNARTZEKO ERREPORTAJEAK  
 60 EUROTIK AURRERA  
**ARETXABAETA HERRIKO PLAZA 10**  
**WWW.mjargazki.com**





XAKEA

## Arlutz Xake Taldea Ohorezko Mailan segitzeko itxaropenez dago

Bi partida bakarrik falta zaizkio denboraldia bukatzeko, eta erabakigarriak izango dira

MIRARI ALTUBE

Abenduan hasi zuten denboraldia Euskal Ligako xake jokalariek, eta martxoaren 6an bukatu behar bazuten ere, astebete atzeratu dute elurraren ondorioz. 9. postuan dago Arlutz, baina Ohorezko Mailan segitzeko itxaropenik ez dute galdu aretxabaletarrek.

Denboraldi gogorra izan du Arlutz Xake Taldeak, eta oraindik partida bi falta zaizkio bukatzeko. Puntuak eskuratu beharko ditu Ohorezko Mailari eusteko.

### BI EDO HIRU TALDEK BEHERA

Partida bi bakarrik falta zaizkio Arlutz Xake Taldeari denboraldia bukatzeko. Joan zen astean jokatu behar zuten Urnietaren aurka, baina elurraren ondorioz atzeratu egin zituzten partida guztiak. Hala, hurrengo bi asteak erabakigarriak izango dira.

Bederatzigarren postuan dago orain Arlutz, 8,5 punturekin, eta puntu gehiago eskuratu beharko ditu mailari eutsi gura badio. Euskal Ligako Ohorezko Maila hamar taldek osatzen dute, eta horietatik, azken biak edo hirurak jaitsi egingo dira Lehenengo Mailara. Iazko denboraldia Lehenengo Mailan egin zuten Arlutzek. Oso ondo ibili ziren orduan Andoni eta Fran Miguel, Aitor Alcaide eta Esteban Romero, eta Euskal Ligara egin zuten salto. Denboraldia hasi zutenean baze-



Hurrengo partida bietan puntuak eskuratzea komeni zaio Arlutz Xake Taldeari.

kiten aurkari indartsuak izango zituztela aurten, xake jokalar asko profesionalak direlako.

### ITXAROPENA GALDU BARIK

Arlutz Xake Taldeko kideek ez dute itxaropenik galdu. Urnieta eta Orvina taldeak izango dira aretxabaletarren hurrengo aurkariak. Orvina taldea ondo ibili da orain arte, eta laugarren dago sailkapenean. Urnieta, bestalde, Arlutzen aurretik dago, 9 puntu-

rekin; hortaz, irabaztea komeni zaie puntuak eskuratzeko. "Gure aurkari zuzenek, hau da, azken postuetan daudenek, guk baino partida zailagoak dituzte; hortaz, guk baino puntu gutxiago eskuratuko duten itxaropena daukagu", dio Aitor Alcaide Arlutzeko taldekideak.

Zapatuan Urnietan jokatuko dute, eta azken partida etxean izango dute Iruñeko Orvina taldearen aurka.

ESKIA

### Asteburuan egingo du Murruxio MEak Luz Ardidenera urtero egiten duen irteera

Zapatu goizean, 05:30ean hain zuzen, aterako dira Azbe lantegi pareko geltokitik Murruxio Mendizale Elkarteko kideak Frantziako Luz Ardiden herrirantz. Urtero antolatzen du Murruxiok eski irteera, eta aurten, ia 50 lagunek eman dute izena; hortaz, autobusa beteta joango da. Aste honetan bertan, oraindik izena ematera hurreratu dira herritar batzuk Mendi Elkar-teak duen lokalera. Pozik daude Murruxioko arduradunak giro bikaina sortuko dela uste dute-eta bidaian.

Zapatua eta domeka izango dituzte eskiatzaileek elurretan ibiltzeko; ia eguraldiak ere laguntzen dien gustura eskiatu ahal izateko.

TXIRRINDULARITZA

### Sortu berri duten Ederra Taberna Mendi Bizikleta taldean aretxabaletar bat dago

Ederra Taberna Mendi Bizikleta taldea aurkeztuko dute zapatuan Dorletako Ama Txirrindulari taldeekin batera. Oraintsu sortu dute taldea Arrasateko Ederra tabernak lagunduta, eta elite mailako txapelketatan hartuko dute parte. Lau lagun daude taldean: arrasatear bi, eskoriatzar bat eta aretxabaletar bat, Iñigo Roldan. Euskadiko eta Espainiako openetan parte hartzeko asmoa daukate, baina ez dute inolako helbururik jarri; ondo pasatzea da euren helburu bakarra Iñigoren esanetan.

Horren harira, Euskadiko openeko froga bat Arrasaten egingo dute martxoaren 28an. Guztira 12 froga izango ditu, eta bigarrena izango da Arrasaten egingo dutena.

FUTBOLA

### Bertan behera geratu ziren zapatuan eta domekan jokatu behar zituzten partiduak

Asteburuan egin zuten elurraren ondorioz bertan behera geratu ziren zapatuan eta domekan Ibarra futbol zelaian jokatu behar zituzten partiduak. Ez hori bakarrik, Aloñak eta UDak jokatu behar zuten derbia ere atzeratu egin zuten. Aste Santuan jokatzea proposatu dute oñatiarrek, baina aretxabaletarrek ez dute gustuko data hori, eta oraindik ez dute erabaki noiz jokatu.

Domeka honetan, bestalde, Ordizia taldea hartuko du Ibarra futbol zelaian preferenteko taldeak. 16:30ean izango da partidua. Lehenengo mailako gazteek, oster, Sorluzeko taldea izango dute aurrez aurre zapatuan, 16:30ean, Ibarra futbol zelaian.

**PIENSO**  
**SUNZUE S.A.**

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**JAUSORO OSTATUA**

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**MAPFRE**

Aseguroak

Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**Jou Diaz**

*Karakina*

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**Maritxu**

**drogeria**  
**mertzeria**

Araba Ibilbidea 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**ZARAIA**  
**taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa*  
*orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Lasai**

**Mirian Manteca**  
**masajista**

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak



ERRETRATUZAHARRA

# 30eko kintoek bazkaria egiten zuten urtero



**K**intoek bazkaria edo afaria egitea ohikoa da gaur egun. Hala ere, ohitura ez da berria, ez, horixe. Aspalditik dator. Hala, 1930eko kintoek urtero egiten zuten bazkaritxo. Urte batzuetan gehiago elkartzen ziren, eta beste batzuetan gutxiago, baina beti saiatzen ziren elkartzen. Ez hori bakarrik, erretratua ateratzeko ohitura ere bazuten kinto haiek.

Erretratua 1967an atera zuten, bazkaria egiteko elkartu zirenean; Anduaga taberna parean, hain zuzen, bertan egin zuten-eta bazkaria. Erretratuan ageri diren gehienak dagoeneko ez daude gure artean; izan ere, 90 urtetik gora izango lituzkete guztiek. Zaharren egoitzan dagoen Anjel Gago bakarrik dago bizirik; hortaz, ez da samurra guztien izenak asmatzea. Hori horrela, beheko ilaran eskumako aldean dagoen bikotea ezin izan du inork ezagutu. Antza, kanpoan bizi zen aretxabaletarren bat izango da; amaztea eta biak etorriko ziren bazkarira. Goiko ilaran dagoen

bosgarren gizonak ere hainbat zalan-tza sortu dizkie galdetutakoei. Bernabe Makazagaren esanetan, Eraña abizena zuen eta *Arbigoxo* ezizenez ezagutzen zuten eskoriatzar baten antza dauka. Hala ere, ziur ezin esan, aretxabaletarrek egindako kinto bazkarian egotea harrizkoa da-eta.

Argazkia orain urtebete inguru hil zen Jose Jauregik utzi zigun, orain urtetxo batzuk.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Prudentzio Ezkurra, Donato Urrutia, Pablo Errasti, Patxi Leibar, Eraña *Arbigoxo*, Patxi Axpe, Anjel Osinaga eta Bonifazio Akixu.

Beheko ilaran, berriz, ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: Antonio Garai, Antonio Otxoa, Anjel Gago, Jose Jauregi, eta kanpotik etorritako bikotea ez du inork ezagutu.

**Argazkia:** Miren Zuazabeitia eta Bernabe Makazaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Otalora kalearen aldaketa

**E**txeak berritu, edo bota eta botatakoen lekuan berriak egiten dituztela-ko kaleek daukaten itxura aldatu egiten da. Eta, hala, herria ere aldatuaz doa. Argazkian ageri den Otalora kaleak ez du aldaketa nabar-menik izan azken urteotan, baina bai txikiak. Bertako etxeak berritu egin dituzte, eta beste itxura bat daukate orain, baita kaleak berak ere.



≈ 1960 Argazkian ezin dugu antzeman behar beza-la, baina etxeek zahar itxura daukate. Atentzioa ematen du kalean autorik ez egotea.



2004 Itxura dotorea daukate gaur egun Otalora kaleko etxebizitzek. Horietako batzuk, gainera, oraintsu margotu dituzte.

PAGALDAI

*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA**

**Aretxagazeta**



LURRINDEGIA  
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA



*Matikua  
jatetxea*

Azata auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 5a / 158. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## ‘Udaltalde 21 Debagoiena’: ingurumen arazoa konpon dezakeen proiektua

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Udaltalde 21 Debagoiena** plana onartzeko lehen urratsa eman da herrian. Garapen iraunkorraren bidetik, politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak hartzeko konpromisoa eskatzen duen proiektua. Mundu hobe baten bila, betiere.

Otsailaren 26an, eguenean, Eskoriatzako Udalak ohiko osoko bilkura egin zuen. Bertan, hainbat gai landu zituzten. **Udaltalde 21 Debagoiena** da horietariko bat, eta ingurumenarekin zerikusia duen plana martxan jartzeko lehenengo urratsa eman da Eskoriatzan.

### PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

“Ingurumeneko arazoari irtenbideren bat eman nahi badiogu, tokian tokiko ekimenak egitea da gakoa”, adierazi du Eskoriatzako alkateak. Horretarako, **Udaltalde 21 Debagoiena** proiektua aurkeztu eta onartu zuten.

Brasilgo Rio de Janeiro hirian, 1992. urtean, ingurumenaren eta garapenari gaineko nazioarteko konferentzia egin zuten. **Agenda 21** izeneko estrategia orokorra



Gure ingurugiroa hondatzen ari da besteak beste kutsaduragatik. Hori aldatzeko, guztiok egin behar dugu zerbait.

aurkeztu zuten, garapen iraunkorraren bidetik planetaren suntsipena eragotz lezaketen politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak hartzeko.

Duen garrantzia ikusita, administrazioak horren inguruko mozioa onartu zuen, ibarreko beste herri batzuetan bezala. **Udaltalde 21 Debagoiena** proiektua

aurrera ateratzen bada, Zuzendaritza batzordeak urtero egingo du bileraren bat. Horrekin, hitzarmenaren eta aurrerapausoen jarraipena egingo lukete.

*Tokian tokiko ekimenak egitea funtsezkoa da ingurumena zaindu nahi bada*

*Rio de Janeiron onartu zuten lehenengo aldiz ‘Agenda 21’ izeneko estrategia*

*Garapen iraunkorraren bidetik planetaren suntsipena eragotzi nahi da*



### Elurra lagun aurreko egubakoitza ezkerro

Elurte gogorra izan genuen aurreko asteburuan eta baita aste honen hasieran ere. Udalak elurra kentzeko plana aurrera eraman zuen, nahiz eta egubakoitzean bertan, aurrez kontratatutako kamioi batek huts egin matxura baten ondorioz. Egoera ikusita, udaljeepa eta baserritar batek utzitako traktorea erabili zituzten, batez ere elizateetarako bideak garbitzeko. Asteburuan, ibilgailuez gain, Udaleko langileak ere ibili ziren Eskoriatzako kaleak txukuntzen. /Z.V.M.

### LABUR

#### Errepublika eta Espainiako gerra, erakusketa baten

Udalak Errepublikari eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa antolatu nahi du apirilaren 17tik maiatzaren 2ra. Horregatik, gai horren inguruko materiala (dokumentuak, argazkiak,...) dutenei, horiek uzteko eskatu nahi diete antolatzaileek. Udalak adierazi du konpromisoa hartzen duela materiala ongi zaindu eta erakusketa amaitutakoan jabeen egoera onean itzultzeko. Eskoriatzako kultura etxera jo, edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea .....	943 71 44 07
Udal bulegoak .....	943 71 45 32
Udaltzaingoa .....	943 71 44 07
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Kultura etxea .....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea .....	943 71 31 36
Kirol etxea .....	943 71 53 28
Liburutegia .....	943 71 31 35
Luis Eceiza .....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola .....	943 71 44 86
Almen .....	943 71 49 07
Museo Eskola .....	943 71 54 53
Axtroki .....	943 71 40 77
HUHEZI .....	943 71 41 57
Osakidetza .....	943 71 44 52
Telesko .....	943 71 49 17
Taxiak .....	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate) .....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) .....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) .....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) .....	945 23 20 30
PESA (Arrasate) .....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) .....	943 77 10 43
SOS Deiak .....	112

**OHARRAK**

**VIANARA AMUSKAREKIN**

Amuska emakume taldeak irteera antolatu du biharko, 09:00etan irtengo da autobusa Viana (Nafarroa) aldera. Bisitaldi kulturala izango da, eta herriak duen aberastasun desberdinak bisitatuko dituzte.

**EMAKUMEEN EGUNA**

Bestalde, astelehenean Emakumeen Eguna ospatuko, Virginia Imaz, Oihulari Klowneko kideak, *La recordadora* antzerki lana aurkeztuko du kutura etxean. 18:00etan izango da hitzordua. Ondoren, luntxa egongo da bertara gerturazten diren guztientzako.

**AXTROKIRENAGENDA**

**DIAPORAMA EMANALDIA**

Jon Abril eta Asier Gogorzak egindako "Txina, dragoia ernatzen delarik" diaporama emanaldia eguenean, martxoak 11, herriko kultura etxean.


# Laster egongo da Telesko Euskaltelen eskaintza barruan

Z.V.M.

**Eskoriatzan Euskaltel etxe askotara sartu da. Horrek, herritar horiek Telesko ezin ikustea baldintzatu du. Udalak konponbidea eman nahi izan dio arazoari, eta egindako negoziaketari esker, herritar guztiek laster ikusi ahalko dute herri telebista.**

Eskoriatzako hainbat etxeetan sartu dute Euskaltelen zuntz optikoa; Euskaltel 115 etxeetan sartu da jada herrian. Hala ere, hainbat tokitar oraindik ez dira iritsi, eta ziurrenik hilabete barru kableak Apotzagara eraman eta telebista ikusteko bezala egongo dela adierazi digu herriko alkateak.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da Euskaltel. Hala ere, telebista bidez eskaintzen duen zerbitzuan ez dira telebista txikiak sartzen. Horretarako enpresarekin negoziatu beharra izaten dute interesatuek, eta Eskoriatzako Udalak ere horrela egitea erabaki zuen Telesko herritarrengana irits dadin. Zerbitzua nola dabilen ikusteko, legealdi honetan lehenengo bilera



Zuntz optikoa sartzten aritu ondoren, 115 etxeetara sartu da Euskaltel.

egin zuen Udalak. Helburua lortuko dutela adierazi digu Juan Carlos Bengoak, eta pare bat hilabete barru herri telebista, eskaintzaren barruan sartuta egotea espero dute Udal ordezkariak.

**EUSKALTEL ELIZATEETARA**

Hala ere, Euskalteko eskaintza baino lehen, beste arazo batzuei egin beharko die aurre Udalak. Eskoriatzako zenbait elizateetan telebista seinalea hartzeko ara-

zoak izaten dituzte. Elizate horiek Marin, Zarimutz eta Mazmela dira. Aurrekontuak aurkeztu dituzte, eta bertan, hiru elizateetan egoera hobetzeko proiektua abian jarri dute. Eskoriatzako lurretan, baina ia Gatzagako herrian, errepikagailu bat jartzea dute helburu udal ordezkariak. Egitasmoa aurrekontuak onartutakoan egikariturako dute, eta seinalea jasoko da elizateetan.

Horretaz gain, elizateetara bideratutako bigarreni proiektu baten berri eman digute Udaletik. WI-FI sistema eskaintzea. Teknologia hori kablerik gabeko sistema da, edozein momentutan eta edozein lekutan datuak eskuratzeko aukera ematen du. Horrela, erabiltzailea edozein tokitan dagoela ere, hainbat zerbitzu izango ditu eskura. Lorategian baldin badago, Internet erabil dezake, esaterako. Orokorrean WI-FI sistemak kabledun sare batek eskaintzen dituen zerbitzu berberak ditu. Baina eskaintzen duen abantaila, finkatutako toki jakin batean egon barik, higikortasunean hainbat zerbitzu eta aplikazio eskuratzeko aukera. Horretarako, baina, itxaron behar.



**Bergarako ekimenaren aldeko agerraldia**

Bergarako ekimenaren aldeko eskoriatzarrek hotza alde batera utzi eta agerraldia egin zuten astelehenean, martxoak 1. Datorren astean ospatuko dira estatu mailako hauteskundeak, eta egun hori aintzat hartuta herriko plazan elkar-tu ziren *Euskal Herria Aitor-tu eta Errespetatu* lelopean. Hain zuzen ere, martxoaren 14an botoa ematerako unean inposaketa eta zapalkuntzari uko egingo diotela adierazi zuten herritarrek elkar atar-tze horren bidez. /Z.V.M.

**LABUR**

**Uztailean A-1 autopistako lanak Eskoriatza aldean**

Gipuzkoako azpiegitura agintziak, Bidegik, Eskoriatza iparraldean Arlabango bideen lanak lehiaketara atera ditu, A-1 autopista (Eibar-Gasteiz) proiektuaren barruan. Arlabango tunela egin beharko da, beste lan batzuen artean. 3,3 kilometroko luzera izango du. Neurri horiek, A-1 errepideko tunelik luzeena bilakatu-ko dute Arlabangoa. Lanen aurrekontua 205 milioi euro-koa izango da, eta aurtengo uztailean hasita, 2007an amaitu-ko beharko dute.

**bedardenda**  
Tel.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

**Villar**  
Ile apaindegia  
Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

**EDURNE**  
ESTETIKA ZENTROA  
Informa zaitetz!  
Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?  
Depil Plus sistemarekin zure arazoak ordutan konponduko dugu...  
Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA



# Sorginak emakume taldeak bazkaria egingo du Gure Ametsa jatetxean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bihar egingo dute Sorginak emakume taldekoek urteroko bazkaria. Ekimenarekin, martxoaren 8a ospatu gura dute. Animatzen diren argazkia lehenengo eta horren ondoren, bazkaria, dantzaldia, eta isuski banaketa. Egun paregabea pasatzeko aukera.

Emakumeen Eguna ospatuko da datorren astelehenean. Hori dela eta, Sorginak emakume taldeak bazkaria egingo du bihar. Gure Ametsa jatetxera joango dira 14:30ak aldera. Herriko 40 bat lagun bilduko dira bertan.

Duela hamabi bat urte, Gatzagako hainbat emakumek elkartu eta emakumeen beharrak asetzeko zerbait egin behar zela erabaki zuten. Ondorioz, Sorginak emakume taldea osatzea pentsatu eta horrela egin zuten. Elkarrekin jaio zen urte beretik ia, adin guztietako emakumeak urtero batzen dira Martxoaren 8a ospatzeko. Horregatik, bihar ere bilduko dira, janariz beteriko mahaiaren inguruan.

Taldea sortzea erabaki zutenean "emakumeen behar batzuei erantzuteko egin genuen", adierazi du Amaia Olabe taldekidea. Adin guztietako jendea biltzen du Sorginak taldeak. "Emakume helduenek duela 15 edo 20 urte ez zuten herrian horrelako topagune bat izaterik espero. Beraientzat oso garrantzitsua da emakumeen arteko elkartasun edo laguntasun hau izatea", adierazi du Amaiak. Askotariko ekimenak egiteko aukera ematen die herriko emakumeei, hainbat toki eza-gutzeko, bazkariak egiteko...

Gatzagako emakumeen artean, adinean alde handia dago kasu batzuetan. Horregatik zerbait egin behar zela bururatu zitzaion Sorginak taldeko kideei. Horrela hasi ziren bazkaria antolatzen. Bihar, bazkaldu aurretik, emakume gatzagarrek argazkia aterako dute jatetxe kanpoan, oroigarri gisa. Gero, tripa ederto beteko dute janari goxoarekin.

Sorginak emakume taldeko Amaia Olaberekin hitz egin dugu,



lazko bazkarian ederto pasa zuten *sorginek*. Argazkian, isuskia egokitu zitzaizen hiru emakumeak.

ARTXIBOA

*Giro paregabean pasatuko dute biharko eguna emakumeek, mahaiaren bueltan*

eta beraientzako bazkari honek helburu garrantzitsu bat duela azaldu digu: "Garrantzitsuena da herriko emakumeok hobeto elkar ezagutu eta giro ona sortzea. Era berean, elkarri laguntzeko hitzordua izan daiteke biharkoa".

Emakumeen eguna ospatzeko antolatutako bazkarietan erritu bera egiten dute beti: hiru isuski banatzen dituzte urtero. Zozketan, baina, aurreko urteetan isuskirik jaso ez dutenak sartzen dira soilik. Isuski horiek begizta bat izaten dute lotuta, eta horrekin batera txartel batean honakoa idatzita: *Goibel guzien petik,*

*Hiru isuski banatuko dituzte bazkarira gerturatutako 'sorginen' artean*

*sasi guzien gainetik, ordu laurden bat arata, bertze bat unata...*

Behin taldekide guztiek isuski bana jasotzen dutenean, zerbait berezia egin gura dutela adierazi digu Olabek; oraindik ez dute erabaki zelan ospatuko duten.

Bihar, emakumeek giro paregabean elkarrekin bazkaltzeaz gain, taldeak urtero egiten duen bidaia nora egin erabakiko dute. Aurreko urteotan Oviedo eta Burgos aldean egon dira, besteak beste. Eta aurtengoan Estatuko beste leku bat bisitatuko dute.

Emakumeen eguna ospatzeko da biharko bilgunearen arra-

*Berdintasuna lortzeko, funtsezkoa da guztiok aldatzea eta gaurko egoeraz pentsatzea*

zoietako bat. Hori dela eta, emakumea gaur egun dagoen egoerari buruz galdetu diogu Amaia: "Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen du gizarte honek. Hala ere, oraindik lan handia egin behar dela deritzogu sorginok, desberdintasunak begi bistan daude eta. Zer egin behar da, beraz? Guztiok aldatu beharko dugu gizarteko sektore guztietan berdintasuna lortu gura bada". Horretarako, gaur egun gertatzen denari buruz sakon pentsatu beharra aipatu du Sorginak taldeko kideak, eta hainbat kon-tutan dugun jarrera aldatu.

## LABUR

### Txirrindulari taldeak bihar aurkeztuko dituzte

Bihar aurkeztuko dituzte Deba-goieneko txirrindulari taldeak. Aurreko astean egin behar zuten aurkezpena, baina eguraldiak ez zuen lagundu. Elurak ibar osoa zuritu zuen, eta errepideak egoera tamalgarririen geratu ziren; kasu askotan, ezin zitekeen gidatu. Gatzagako bidea izan zen horietariko bat. Horren ondorioz, ekimena atzeratzea pentsatu zuten antolatzaileek. Goizeko 10,30etan Dorletako Santutegira joango dira, urteroko ohi-turari jarraituz, Ama Birjinari lore eskaintza egitera. Eguerdi aldera guztiak Herriko Plazara jaitsi eta Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako taldeak aurkeztuko dituzte. Esan bezala, aurreko astean egin behar zuten hori guztiori, baina bihar arte atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek.

### Aralar-Zutik koalizioaren aurkezpena bihar

Aralar-Zutik koalizioak bere taldearen aurkezpena egingo du Gatzagan bihar, zapatua, 13:00etan. Herritarrei euren proposamena zein den jakinaraziko diete ekitaldi horren bitartez. Hauteskunde orokorrak datorren astean egingo dira, eta hauteskunde kanpaina murgilduta gauden honetan, ahalik eta herritar gehien botoa eskuratzea dute helburu alderdi politiko guztiek. Horretarako, ahalik eta sinestarrak agertu behar dira jende aurrera, alderdi guztiek dakite hori. Aralar-Zutik koalizioa ere Espainian ahalik eta ordez-kari gehien izaten saiatuko da. Horrela, asteburuan koalizioak duen egiteko nagusia da gatzagarren botoa eskuratzea. Euren proposamena aurrera ateratzea eta finkatuta dituzten helburuak lortuz gero, herritarren interesak Madrilen nola defendatuko dituzten azalduko diete bihar gatzagarrei 13:00etatik aurrera herriko kaleetan.

## GOIENAN HERRIZ HERRI

Jose Ramon Perez, Gatzagako alkatearekin berbetan Martitzenean, martxoaren 9an, 20:30ean.

Goitb  
Goiena Telebista

Ikusiko  
duzu!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:

ARRASATE-ARETXABAETA







LYON-REALA SAIO BEREZIA

# GOITB, debagoiendarrekin Lyonera!



**Ikusiko  
duzu!**

LYON-REALA / Babeslea:  
**MUEBLES FERNANDEZ**  
Gamarrako atea 21  
GASTEIZ

LYON-REALA  
Saio berezia

Egubakoitzean, martxoaren 12an,  
20:30ean



## Edertasun Gida

# 'Gaur egun dagoen produktu mordoarekin, tamalgarria da gure ilea hondatzen uztea'

**D**uela hamaika urte, Marisol Lozano aretxabaletarrak ile-apaindegia ireki zuen herrian. Irudi jarri zion izena, bere lanbidearekin zerikusi handia duena. Hala ere, Marisol eskarmentu handiko ile-apaintzailea da, hogei urte darama-eta gustuko duen lanbide horretan.

### IRUDIREN ESKAINTZA

Irudi ile-apaindegian hiru emakumek dihardute lanean. Marisolek ilea txukuntzen dihardu, eta orain dela bi urtetik, Monika Gabilondo arrasatearraren laguntza du. Bestalde, Isabel Magallanes makillajeaz arduratzen da. Euren lana beste edonorena bezalakoa dela aipatzen dute hirurek: "Lan guztiak bezala, gogoko izan behar da, lana txukun egiteko".

"Lan horretan hasi nintzenetik, gauzak asko aldatu dira", onartu digu Marisolek. "Lanbide hau etengabe aldatzen eta eraberritzen da. Baina lana ez da aldatu den gauza bakarra, jendea ere asko aldatu da-eta lan honetan daramadan hogei urte hauetan".

Askotariko jendea gerturatzen da Marisolen negozioa: gazteak eta helduak, emakumezkoak eta gizonezkoak. "Geroago eta gizonezko gehiago etortzen diren arren, proportzioan, emakume gehiago gerturatzen da Irudira", adierazi du Monikak. "Edozein ere, itxura zaintzen duten gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago egiten dute", onartzen dute ile-apaindegiko hiru langileek. Aretxabaletarrek ilean zer egiten duten galdetu, eta gehienbat tindatzea



ile zaindu egin behar dela azpimarratu nahi dute Maite eta Sandrak.

atsegin dutela adierazi digute. "Xerloak (metxak) egiten ditugu, kolore kontrasteak... Orokorrean jendea hasieran nahiko itxia da kolore berriak probatzeko, baina azkar konbentzitzen ditugu, eta azkenean, ausartu egiten dira". Gauza arraroak ere eskatu dizkiete: "Eskatu diguten gauzarik bitxia buruan futbol pilota bat egitea izan da".

Irudin ile-luzapenak egiten dituztela adierazi digu Marisolek: "Jendeak ez daki eskaintza hori ematen dugunik. Ilea naturala erabiltzen dugu batez ere, baina artifiziala *rastak* egiteko erabiltzen dugu. Gainera, kolore eskaintza zabalagoa da". Horrez gainera, solariuma ere badute Irudin. Bestalde, Isabelek sei urte darama negozioan makillaje lanean, eta gehienbat ezkontza makillajea egiten duela adierazi digu aretxabaletarrak.

### ILEA ZAINTEAREN GARRANTZIA

Ile-apaindegira gerturatzen diren bezeroek, orokorrean, ilea zaintzeko ohitura dutela adierazi digute. "Gaur egun zainketak egiteko dauden produktu mordoarekin, tamalgarria da hondatzen uztea", aipatu digu Irudiko jabeak. Gainera, edozein ile mota elikatu behar dela gogorarazi digute, eta ile-erorketa ekiditeko tratamenduak jarraitzea gomendatu. "Gogoratu gaur egungo gizarteak eragindako estresak, esaterako, ilea erortzen laguntzen duela, eta hori ekiditeko moduak badaudela". Hala ere, herritarrek, orokorrean, ile-apaindegira joanda baino gutxiago zaintzen omen dute ilea etxean.

## Hil honetan:

*Gemes*  
estetika  
Laser bidezko depilazioa  
Makillajea  
Ilargi plaza 1, Aretxabaleta. Tel. 943 79 99 18.

**L-10**  
ILE APAINDEGIA  
ESTETIKA  
SOLARIUMA  
LORAMENDI, 10  
TEL: 943 77 01 26  
20550 ARETXABAETA

**Irudi**  
Ile apaindegia  
Errekabarren 20 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 80 90

**TXIMAK**  
ILE APAINDEGI MISTOA  
ETA ESTETIKA  
Horriko Plaza 5, behea Tel. 79 83 64  
ARETXABAETA

**KiXkur**  
ILE APAINDEGIA  
Solarium bertikala  
Ile-luzatzeak  
Estetika zerbitzuak  
Loramendi 11, ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 90 79.

**MAITE**  
ILE APAINDEGIA  
Sarasate 1 behea  
Tel. 943 79 59 05  
ARETXABAETA

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora